



ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, IZOZKIEN, GOZOKIEN, FRESKAGARRIEN ETA EDARI EZ ALKOHOLDUNEN HIRU (3) SALMENTA-POSTU, BI (2) TABERNA-TXOSNA ETA BARKILLO ETA ANTZEKOEN SALMENTA-POSTU IBILTARI BAT (1) INSTALATZEKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBORAKO ADJUDIKAZIOA ERAENDUKO DUENA

I.- XEDAPEN OROKORRAK:

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholdunen bi (2) salmenta-postu, taberna-txosna bat (1) eta barkillo eta antzekoen salmenta-postu ibiltari bat (1) instalatzeko behar den lurzuaren erabilera pribatiboa izango da, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako moduan eta baldintzak errespetatuta. Hona hemen salmenta-postu horien kokapena:

▪ **Izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholdunen salmenta.**

- I. Izozkien salmenta-postua "Astondo"n, 1. zenbakian.
- II. Izozkien salmenta-postua "Busterri zubia"ren gunean, 3. zenbakian.

*Postu bakoitzak okupatu beharreko gehieneko azalera ezin izango da 5 m²-tik gorakoa izan.

▪ **Taberna-txosna.**

- I. Taberna-txosna "aterpetxea"ren gunean, 2. zenbakian.

*Taberna-txosna bakoitzak okupatu beharreko gehieneko azalera ezin izango da 20 m²-tik gorakoa izan.

▪ **Barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltaria.**

- I. Barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltaria "Areatza"n, 4. zenbakian.

2.- KONTRATAZIO-ORGANOA.

2.1.- Gorrizko Udalaren izenean jarduten duen kontratazio-organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian eta 51. eta 316. artikuluetan eta Alkatetzaren eskumen horretarako Tokiko Gobernu Batzarra eskuordetzeko bere garaian hartu zen udal ebazpenean ezarritakoaren arabera.

2.2.- Organo horrek kontratua adjudikatzeko eskumena du, eta, horren ondorioz, hori interpretatzeko, betetzeko orduan dauden zalantzak ebazteko, interes publikoko arazoak direla-eta aldatzeko, haren suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondorioak zehazteko



eskumenak ditu, aplikatu beharreko araudiari lotuta. Horri buruz hartzen dituen erabakiak betearazleak izango dira, kontratistak Jurisdikzio eskudunaren aurrean horiek aurkaratzeko duen eskumenari kalterik egin gabe.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.

Kontratu hau administratibo berezia da, eta kontratu honen prestaketa, adjudikazioa, ondorioak eta iraungipena baldintza-agiri honek xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta baldintza-agirian aurreikusten ez diren kasuetan, aplikaziokoak izango dira azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Arautegi Orokorra onetsi duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginari kontra egiten ez dion guztietan, 817/2009 Errege Dekretua indarrean jarri ondoren indarrean badago. Halaber, osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da eskuduna kontratu honetan alderdien artean sortzen diren eztabaidak ebazteko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 21.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.2.- Amaitzeko, aplikatu egingo dira Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak zehaztutako baimen baldintzak (2014ko maiatzaren 5eko ebazpena), Kostaldeei buruzko 22/1988 Legea eta Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legea garatu eta betearazteko Araudi Orokorra onetsi duen abenduaren 1eko 1471/1989 Errege Dekretua.

4.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Kontratuari dagokion informazioa gardena dela eta publikoaren eskura dagoela bermatzeko, nahiz eta beste publikitate-baliabide batzuk erabil daitezkeen, Udal honek Kontratatzailearen Profila du, eta web orri honetan lor daiteke, arautzen diren zehaztapenen arabera:

- www.gorliz.net

5.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.

5.1.- Gornizko Udalarekin kontratua gauzatu ahalko dute, jarduteko gaitasun osoa izanda, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako baten batean ez dauden pertsona naturalak edo juridikoak, Espainiakoak zein atzerrikoak. Alderdi hori azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 73. artikuluan ezarritako baliabideetako edozeinen bidez egiaztatu ahalko da.

Europar Batasuneko estatu kideetako (Espainia kanpo) enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, HAKLren Arautegi Orokorreko I. eranskinean adierazten diren lanbide edo merkataritza erregistroetako batean inskribatuta egoteari buruzko ziurtagiriaren bidez.



Atzeriko gainerako enpresek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, Espainiak enpresaren helbideari dagokion lurraldean duen Diplomazia Misio Iraunkorraren edo kontsuletxearen txostenaren bitartez. Txosten horretan adierazi beharko da, enpresak egiaztatu ondoren, tokiko lanbide edo merkataritza erregistroan edo antzekoan inskribatuta dagoela, edo, horrelakorik ez badago, kontratuaren xedeak barne hartzen dituen jardueren eremuan tokiko trafikoan jardun ohi duela. Halaber, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 55. artikulua aipatzen duen elkarrekotasun txostena aurkeztu beharko da.

5.2.- Aipatutako betekizunez gain, lizitatuzaileek beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatu beharko dute, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 62., 74., 75. eta 78. artikuluen babesean, jarraian aipatu diren justifikazio bideen bitartez:

- **BALDINTZA EKONOMIKOAK:** Finantza entitateak lizitatuzailearen kaudimen ekonomikoari buruz egindako adierazpena.

*Arrazoi justifikatu bat dela eta, lizitatuzailea eskatutako erreferentzia aurkeztu ezin badu, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa aldeko saldoa egiaztatzen duen banku laburpenaren bidez aurkezteko baimena emango zaio.

- **BALDINTZA TEKNIKOAK:** Elikagaien manipulatuzailearen txartela edo, hala denean, betekizun hori betetzeko konpromisoa adierazten duen idazkia (azken betekizun hori ez da beharrezkoa, barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltariaren lizitaziorako).

Taberna-txosnen sortarako, interesdunek instalazioaren ezaugarri teknikoak (materialak, planoak eta abar) buruzko azalpen memoria aurkeztu beharko dute, Baldintza Teknikoen Agirira 1. eranskin gisa gehitutako baldintza teknikoak, gutxienez, betetzen dituenak. Gorrizko Udalak (Bulego Teknikoa) memoria horren analisi teknikoa gauzatu, eta adostasun edo ukapen akta egingo da, gainerako gutun-azalak ireki baino lehen.

*Zerbitzu hau ustiatzen hasi baino lehen, zuzeneko ustiapenean diharduten langile guztiek elikagaien manipulatuzailearen txartela izan eta aurkeztu beharko dute. Bien bitartean, eta kaudimen teknikoaren ondorioetarako, nahikoa izango da betekizun hori betetzeko konpromisoa adierazten duen idazkia aurkeztea.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, Europar Batasuneko estatu kideek beren enpresaburuen alde egindako sailkapen ziurtagiriek edo antzeko agiriek gaitasun presuntzioa ekarriko dute, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 84. artikuluan adierazi bezala.

Egiaztatze horien ordez, lizitatuzaileak aurkezten duen Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan inskribatzeko ziurtagirian daudenak edo sailkapen nahikoaren egiaztatzea erabili ahalko dira, kaudimen teknikoaren irizpidetzat jotakoak izan ezik; izan ere, horiek beti aurkeztu beharko dira.



Aurretik adierazitako baliabideen bidez kaudimen teknikoak egiaztatzeaz gain, lizitatuzaileek kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren garapenari atxikitzeko konpromisoa hartu beharko dute beren gain, eta, agiri honetan ezarritakoaren arabera, baliabide horiek zehaztu beharko dituzte eskaintzan. Horrez gain, baliabide horien benetako atxikipena funtsezko betebeharra izango da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 223. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

5.3.- Ezin izango dute lizitazio honetan parte hartu kontratu honen zehaztapen teknikoak prestatzeko orduan esku hartu duten enpresek edo pertsona fisikoek, betiere esku-hartze horrek murizketak eragiten baditu lehia askean edo gainerako enpresa lizitatuzaileen aldean lehentasunezko trataera sortzen badu.

5.4.- Gorlizko Udalarekin kontratua gauzaten dutenek berez edo horretarako behar bezala ahaldunduta dauden pertsonen ordezkariaren bidez egin ahalko dute.

6.- LIZITATZAILEEN SAILKAPENA.

Ez da behar lizitatuzaileen sailkapenik.

7.- ORDAINDU BEHARREKO KANONA.

Kontratu honen adjudikaziodunak Gorlizko Udalari baimen honen bidez ordainduko dion eta gorantz hobetu daitekeen kanonak honako zenbateko hauek izango ditu:

- Izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholduen salmenta-postua: 3.500,97 euro postu eta denboraldi bakoitzeko (BEZa eta gainerako zergak barne).
- Taberna-txosna: 4.530,97 euro postu eta denboraldi bakoitzeko (BEZa eta gainerako zergak barne).
- Barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltaria: 800 euro denboraldi bakoitzeko (BEZa eta gainerako zergak barne).

Horrez gain, eta lizitazio-kanona kontuan hartu gabe, adjudikaziodunak Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak 2014rako ezarritako kanona ordaindu beharko du. Kanon hori 1.137,10 eurokoa da izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholduen salmenta-postu bakoitzeko eta taberna-txosna bakoitzeko, eta 76,68 eurokoa, berriz, barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltariko.

Ordainketak zerbitzua ematen hastearekin batera egingo dira (agiriak eskatzeko fasean). Adierazitako epeetan ordaindu ezean, Diru-bilketari buruzko Araudi Orokorrean ezarritako premiamendu-kargak eta bidezko interesak ordaindu beharko dira.

8.- AURREKONTU-KREDITUA EGOTEA.

Kontratu honek ez dio gasturik sortuko Gorlizko Udalari.

9.- KANONAREN BERRIKUSPENA.

9.1.- Aterpetxearen guneko taberna-txosna eta izozkien salmenta-postuak: 2 urte (adjudikatzen direnetik 2016ko urriaren 16ra arte).



Sorta honetarako bidezkoa da Udalaren aldeko kanona berrikustea, honako formula hau aplikatuta:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Urte arteko Kontsumoko Prezioen gaineko Zergaren Indizea.

10.- BAIMENAREN IRAUPENA.

Baimena Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak udal baimena jasotzen duen egunean hasi, eta hurrengo epeetan amaituko da:

10.1.- Aterpetxearen guneko taberna-txosna eta izozkien salmenta-postuak: 2 urte (adjudikatzen direnetik 2016ko urriaren 16ra arte).

*Baimena Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak udal baimena jasotzen duen egunean hasi, eta 2014ko urriaren 16an amaituko da (bai ustiapena bai benetako okupazio fisikoa).

*Baimena indarrean egongo da hurrengo ekitaldietan, baldintza berdinak izanda, emakidaren 2 urteko gehieneko epea bete arte. Hala ere, baimena ekitaldi bakoitzean Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak Gorrizko Udalari ezartzen dizkion edo Gorrizko Udalak berak egokitzen dituen baldintzei eta/edo aldaketei lotu beharko zaie.

II.- KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA:

11.- ADJUDIKAZIO-PROZEDURA.

11.1.- Adjudikazioaren publizitatea eta prozedura zehazteko ondorioetarako, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduari buruzko ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoa aplikatuko dira, besteak beste.

11.2.- Kontratua prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, eta hurrengo klausulan zehazten den adjudikazio-irizpidea oinarri hartuko da, kontratazio honetarako egokiena baita.

11.3.- Adjudikazio-irizpidea.

Honako formula matematiko hau aplikatuz egingo den baloraziorako oinarri hartu behar den irizpide bakarra honako hau da:

IRIZPIDEAK

Kanona

HAZTAPENA

100 puntu.

*Eskaintza ekonomikoak baloratzeko, ehun (100) puntu emango zaizkio eskaintza ekonomiko abantailatsuenari, eta gainerakoei puntuazio proportzionala emango zaie (hirukotearen erregelaren sistema).

12.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA.



Ez da behin-behineko bermerik eskatuko. Dena den, adjudikaziodunak 400 euroko gordailua egin beharko du instalazio bakoitzeko (ez da derrigorrezkoa izango barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltarirako) Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen aurrean, 2014ko ekitaldirako emandako baimena betez.

13.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA.

13.1.- Proposamenak eta agiri osagarriak lizitazio-iragarkian adierazitako tokian eta epearen barnean aurkeztuko dira, hurrengo idatz-zatietan adierazi bezala.

13.2.- Agiri guztiak lizitazio-iragarkian adierazitako bulegoetan aurkeztu ahalko dira, bai aurrez aurre bai aipatutako epearen barnean mezularitza bidez emanez. Proposamenak eta agiriak postaz ere aurkez daitezke. Hala denean, interesdunak, gordekin egokiaren bidez, proposamena posta bulegora bidalitako data egiaztatu beharko du, eta egun berean jakinaraziko dio kontratazio-organoari faxez edo telegramaz proposamena igorri izana. Jakinarazpen hori posta elektronikoen bidez ere egin ahalko da, baina baliabide hori ez da baliozkoa izango, igorpen eta harrera egiaztatzen ez badira, datak eta komunikazioen eduki osoa zehaztuta, eta igorlea eta hartzailea modu fidagarrian identifikatzen ez badira. Ez da onartuko bi baldintza horiek betetzen ez dituen eskaintzarik, baldin eta lizitazio-iragarkian ezarritako epetik kanpo jaso bada.

Dena dela, epea amaitu denetik hamar egun natural igaro badira, ez da onartuko postaz bidalitako eskaintzetatik bat ere.

13.3.- Interesdunek agiria eta agiri osagarriak aztertu ahalko dituzte lizitazio-iragarkian adierazitako bulegoetan.

13.4.- Proposamenak aurkezteak lizitatuak agiri honetako eduki osoa baldintzarik gabe onartzea dakar, inolako salbuespenik gabe.

13.5.- Proposamena horretarako aukera ematen duten administrazio bulegoetatik bakar batean aurkeztu beharko da, eta, bestela, lizitatuak aurkeztutako proposamen guztiak baztertuko dira.

14.- PROPOSAMENETAKO EDUKIA.

14.1.- Proposamenek bi (2) gutun-azal itxi izango dituzte. Kanpoaldean hautatutako lizitazioa, izen-abizenak edo enpresa lizitatuaren izen soziala, telefono- eta fax-zenbakiak eta helbide elektronikoa, horiek baldin badaude, eta lizitatuaren edo hori ordezkatzeko duen pertsonaren sinadura adierazi beharko dira.

Gutun-azal bakoitzeko edukia aparteko orri batean zerrendatuta egongo da, eta jarraian adierazitako betekizunak bete beharko ditu:

14.2.- 1. gutun-azala: Izenburu hau izango du: **"1. GUTUN-AZALA: Dokumentazio orokorra, izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholunen bi (2) salmenta-postu, taberna-txosna bat (1) eta barkillo eta antzekoen salmenta-postu ibiltari bat (1) instalatzeko jabari publikoko espazioen erabilera pribatiborako adjudikazio-prozedura irekiaren bidezko lizitaziorako, adjudikazio-irizpide bat (1) bakarra egonda".**



Lizitatuzaileak Administrazioarekin kontratua gauzatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela adierazten duen erantzukizuneko adierazpenaren eredia aurkeztuko du.

Adierazpena hurrengo ereduari jarraituz aurkeztuko da:

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak (jakinarazpenetarako helbidea: herria: _____, kalea: _____, zk.: __; eta NAN zk.: _____), _____ entitatearen (IFK: _____) izenean, izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholdunen bi (2) salmenta-postu, taberna-txosna bat (1) eta barkillo eta antzekoen salmenta-postu ibiltari bat (1) instalatzeko behar den lurzoruaren erabilera pribatiboaren kontratuaren lizitazioan parte hartzeko asmoz, _____(a)ren aurrean, honako hau

ADIERAZI DU BERE ARDURAPEAN:

LEHENENGOA. Izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholdunen bi (2) salmenta-postu, taberna-txosna bat (1) eta barkillo eta antzekoen salmenta-postu ibiltari bat (1) instalatzeko behar den lurzoruaren erabilera pribatiboa adjudikatzeko espedientean parte hartuko du.

BIGARRENA. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 146. artikuluko 1. idatz-zatiak kontratu horren adjudikazioduna izateko eskatzen dituen aurretiko betekizun guztiak betetzen ditu, eta, zehatz-mehatz, honako hauek:

- Nortasun juridikoa du, eta, beraz, ordezkaritza ere bai.
- Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko betekizunak ditu.
- Ez dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 60. artikuluan kontratatzeko adierazitako debekuetako bakar batean, eta indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditu.
- Espainiako edozein ordenatuko Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende ipiniko da, kontratutik zuzenean zein zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, lizitatuzaileari egokitu lekiokoen atzerriko jurisdikzio-eskumenari uko eginda (Atzerriko enpresen kasuan).
- Jakinarazpenak egiteko helbide elektronikoa honako hau izango da:
_____.

HIRUGARRENA. Adierazpen honetako bigarren idatz-zatian aipatutako agiriak dituela eta horiek baliozkoak direla egiaztatzeko konpromisoa hartu du, kontratuaren adjudikaziodun hautatzen bada edo hori eskatzen zaion edozein unetan.

Eta, horrela ager dadin, adierazpen hau sinatu du.

_____(e)n, 2014____(e)ko _____aren __ (e)(a)n.

Adierazpen-egilearen sinadura,

14.2.1.- Erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, lizitatuzaileak Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak eskatutako fidantza gordailatu duela egiaztatzen duen agiria eta instalazioaren ezaugarri teknikoak (materialak, planoak eta abar) buruzko azalpen memoria, Baldintza Teknikoen



Agirira 1. eranskin gisa gehitutako baldintza teknikoak, gutxienez, betetzen dituen (taberna-txosnarako baino ez), aurkeztuko ditu.

14.3.- 2. gutun-azala: Izenburu hau izango du: **"2. GUTUN-AZALA: Proposamen ekonomikoa eta zenbakien edo portzentajeen bidez ebalua daitekeen adjudikazio-irizpideari buruzko eskaintza, izozkien, gozokien, freskagarrien eta edari ez alkoholdunen bi (2) salmenta-postu, taberna-txosna bat (1) eta barkillo eta antzekoen salmenta-postu ibiltari bat (1) instalatzeko jabari publikoko espazioen erabilera pribatiborako adjudikazio-prozedura irekiaren bidezko lizitaziorako, adjudikazio-irizpide bat (1) bakarra egonda".**

14.3.1.- Lizitatzailleek agiri honek aipatzen duen adjudikazio-irizpideari lotutako dokumentazioari buruzko agiriak sartuko dituzte gutun-azal horretan.

Eskaintza ekonomikoaren edukia kontratazio-organoak eskaintzak hausnartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea oztopatzen duen akatsik edo ezabapenik gabe idatziko da. Akats edo ezabapen horiek badaude, proposamena baztertu egingo da.

14.3.2.- Lizitatzailleek kontratuaren garapenari atxiki beharreko giza baliabideen eta baliabide materialen zerrenda zehatza sartu beharko dute proposamenean.

15.- KONTRATAZIO-MAHAIA.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko bigarren xedapen gehigarriko 10. puntuan ezarrita dagoenaren arabera, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 21.2 artikularekin lotuta, Kontratazio-mahaiko burua Udalbatzako kide bat edo funtzionario bat izango da, eta idazkari-lanak Udalbatzako funtzionario batek egingo ditu. Kontratazio-mahaia osatuko dute gutxienez lau kidek, horien artean idazkaria, edo, hala badagokio, aholkularitza juridikoaren zeregina esleituta daukan organoko titularra, eta kontu-hartzailea, bai eta, karrerako funtzionarioen, Udalbatzako zerbitzuko lan-kontratupeko langileen edo kide hautuen artean aukeratuta, kontratazio-organoak hautatutako beste batzuk ere.

Halaber, Kontratazio-mahaia osatuko dute udaleko alderdi politikoek horretarako hautatzen dituzten kideek.

16.- DOKUMENTAZIO OROKORRAREN KALIFIKAZIOA.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio-mahaia lizitatzailleek aurkeztutako 1. gutun-azaleko agiri orokorrak kalifikatuko ditu. Aurkeztutako agirietan akats materialik ikusten badu, posta elektronikoki bidez, faxez edo telegrama bidez jakinaraziko dio lizitatzailari, eta jakinarazpen hori espedientean jasoko du. Akatsak zuzentzeko, gehienez ere, hiru egun balioduneko epea emango dio. Hori bai, lizitatzaille baten dokumentazioak zuzendu ezin diren funtsezko akatsak edo gabezia materialak baditu, ez da lizitaziorako onartuko.

Aurreko paragrafoan adierazitako zuzenketak eginda ere, Kontratazio-mahaia lizitatzailen kaudimena guztiz egiaztatzeko, bidezko jotzen dituen argibideak eskatu ahaliko dizkie aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuen gainean. Halaber, beste dokumentu osagarri batzuk aurkez ditzaten eskatu ahaliko die. Eskakizun horri, gehienez ere, zazpi egun naturaleko epean erantzun beharko diote lizitatzailleek, betiere zein proposamen onartu diren adierazi aurretik.



17.- PROPOSAMENEN IREKIERA ETA ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA.

17.1.- 1. gutun-azaleko dokumentazioa kalifikatu, zuzenketak egin, eta, hala denean, eskatutako azalpenak edo agiri osagarriak eman ondoren edo ondore horretarako emandako epea igaro ondoren, Kontratazio-mahaiak onartutako lizitzaileen 2. gutun-azalak irekiko ditu, Gorlizko udaletxeko bilera-aretoan egin beharreko ekitaldi publikoan, honako prozedura honen arabera:

17.1.1.- Lehenik eta behin, buru andreak jasotako proposamenen kopuruaren eta lizitzaileen izenaren berri emango die bertaratutakoei, eta 1. gutun-azalaren aurkeztutako dokumentazio orokorraren kalifikazioaren emaitza jakinaraziko du, onartutako eta baztertutako lizitzaileak eta horiek baztertzeko arrazoiak adierazita. Ondoren, bertaratutakoak bultzatuko ditu egokitzen jotzen dituzten oharrak egitera, ohar horiek aktan agerraraziko direla. Hala ere, une horretan mahaiak ezin izango ditu hartu eskaintzak onartzeko epean edo akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko epean aurkeztu ez diren agiriak.

17.1.2.- Jarraian, mahaiko buru andreak onartutako lizitzaileen 2. gutun-azalak ireki, eta gutun-azal horri lotutako adjudikazio-irizpideari buruz aurkeztutako dokumentuen zerrenda irakurriko du.

Proposamenak ireki eta gero, mahaiko buru andreak bertaratutako lizitzaileak bultzatuko ditu egindako ekitaldiaren inguruan egokitzen jotzen dituzten oharrak edo erreserbak adieraztera, eta, horiek egotekotan, kontratazio-organoaren aurrean bi egun balioduneko gehieneko epean idatziko erreklamazioak aurkezteko aukera dutela jakinaraziko die.

Jarraian, egindako ekitaldi publikoa amaitutzat jo, eta horren garapenaren berri emango da mahaiaren bilerari buruzko aktan.

17.2.- Hala denean, egokitzen jotzen dituen txosten tekniko-juridikoak eskatu ondoren, Kontratazio-mahaiak egokitzen jotzen duen arazoizko adjudikazio proposamena bidaliko dio kontratazio-organoari. Nolanahi ere, proposamen horrek agiri honetan adierazitako irizpidearen haztapena, bilerei buruzko aktak, jarduketetan sortutako dokumentazioa eta, hala denean, egindako txostenak bilduko ditu. Dena den, proposamen horrek ez du inolako eskubiderik sortuko, kontratazio-organoak behin-behineko adjudikazio ebazpena eman arte.

18.- DOKUMENTAZIOA ESKATZEA.

Txostenak jasota, kontratazio-organoak eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitzailea proposatuko du.

Kontratazio-organoak agindeia egingo dio eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitzaileari, hamar egun balioduneko epean, eskakizuna jaso duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 146.1 artikulua aitpatzen dituen aurreko betekizunak betetzen dituela eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala justifikatzen duten dokumentuak aurkezteko edo kontratazio-organoari baimena eman dakion ziurtagiri hori zuzenean lortzeko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 64.2 artikulua arabera



kontratua egiteko aipatu zituen bitartekoak benetan dauzkala egiaztatzeko eta behin betiko berme egokia eratu izana, bidezko kanonak ordaindu izana eta Agiri honetan ezarritako balizko gaineko betebeharrak ziurtatzeko.

19. BEHIN BETIKO BERMEA ERATZEA

19.1.- Adjudikaziodunak behin betiko bermea azken adjudikazio kanonaren zenbatekoaren % 5ean eratu duela egiaztatu beharko du. Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoetan aipatutako bermea eratzea, adjudikaziodunak epe berean edo horren aurretik Administrazio kontratatzailearen aurrean zenbateko nahikoa duen berme orokorra eratu badu, SPKLko 86. artikuluan ezarri bezala, eta berme hori indarrean badago.

19.2.- Bermea eskudirutan, abalaren bidez, balore publiko edo pribatuetan, kauzio aseguru kontratuaren bidez edo prezioaren zati bat atxikiz eratu ahalko da, SPKLren Arautegi Orokorrean ezarri bezala eta baldintzak errespetatuta, eta haren zenbatekoa edo egiaztatzea Gorrizko Udaleko Diruzaintzan gordailatu beharko da.

19.3.- Kontratua aldatu delako haren kanona ere aldatzen bada, bermea hamabost eguneko epean egokituko da, adjudikaziodunari kontratua aldatzeko ebatzenaren berri ematen zaionetik zenbatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 99. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19.4.- Hamabost eguneko epean, zigorrak edo kalte-ordainak benetan ezartzen diren egunetik zenbatzen hasita, hala badagokio, adjudikaziodunak eraturako bermea berriro ipini edo handitu beharko du, kopuru egokian. Hori egin ezean, kontratua suntsitu egin ahalko da.

20.- ADJUDIKAZIOA.

Eskatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak dokumentazioa jaso ondoko bost egun baliodunen barruan adjudikatu beharko du kontratua.

Administrazio espediente honetan adjudikazioak kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta ezarriko ditu.

Ezin izango da lizitazio bat esleitu gabe utzi, baldin eta baldintza agirian azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

Esleipena arrazoitua izan beharko da, pertsona hautagai edo lizitatzailerik jakinaraziko zaie, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Edonola ere, jakinarazpenak beharrezko informazio guztia izan beharko du, baztertutako lizitatzailerik edo hautagaiak adjudikazio erabakiaren aurka oinarri nahikodun errekurtsioa aurkeztu ahal izateko. Bereziki, honako alderdi hauek jasoko dira:

- Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaia baztertzeko arrazoen azalpen laburra.
- Adjudikazio-prozeduratik baztertutako lizitatzailerik dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburbilduta.



- Nolanahi ere, pertsona adjudikaziodunaren izena, eta gainerako lizitatzailen eskaintza onartuen aldean eskaintza hori lehentasunez aukeratu izanaren ezaugarriak eta abantailak.
- Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua gauzatzeko epea adieraziko da.

Jakinarazpena hartzaileak jaso duela egiaztatzeko aukera ematen duten bideetako edozein erabilita egingo da.

III.- KONTRATUA GAUZATZEA:

Kontratua agiri administratiboan gauzatu da hamabost egun balioduneko epean, behin betiko adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da, edozein erregistro publikotan sartzeko.

Kontratatistak horrela eskatzen badu, kontratua eskritura publikoan egin ahalko da, eta hori egitetik ondorioztatutako gastuak haren konturakoak izango dira.

Kontratatari egotz dakizkikeen arrazoiengatik kontratua adierazitako epean gauzaterik ez bada, Gorrizko Udalak kontratua suntsiaraztea erabaki ahalko du.

IV.- KONTRATUA BETEARAZTEA:

21.- KONTRATUAREN XEDE DIREN LANEN ARDURADUN IKUSKATZAILEA.

Kontratazio-organoak pertsona fisiko edo juridiko bat hautatu ahalko du, erakunde kontratugilearekin lotura duena nahiz ez, lanaren arduraduna izateko. Pertsona hori arduratu beharko da obraren egikaritza ikuskatzeaz. Hori horrela, obra kontratuan ezarritakora egokitzen dela egiaztatu beharko du, eta kontratazio-organoaren aginduak eta jarraibideak emango dizkio kontratatari.

22.- KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK.

22.1.- Kontratatistak kontratua betearaziko du, Agiri honetan ezarritako klausulei eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emandako administrazio baimenean (2014ko maiatzaren 5eko ebazpena) ezarritakoari zorrotz helduta, agindu teknikoen agirian ezarritakoa ere errespetatuta.

22.2.- Kontratuaren betearazpena kontratatistaren arrisku eta menturara egingo da, eta Gorrizko Udalak ez du haren finantzaketan parte hartuko eta ez du inolako jesapenik abalatu.

Kontratua betetzeko egin beharreko lanen ondorioz berez edo bere mendeko langile edo bitartekoen bidez hirugarrenei egin zaizkien kalte eta galeren ordaina emango beharko du kontratatistak. Kalte eta galera horiek Administrazioaren aginduren baten berehalako eta zuzeneko ondorio gisa gertatu badira, Administrazioa izango da horien erantzulea, legeetan adierazitako mugen barruan.

Halaber, adjudikazioduna bai Administrazioarako bai hirugarrenetarako akatsengatik, lanaren urritasun teknikoengatik edo lanak eragin dituen lege edo araudi arauen akats materialengatik, ez-egiteengatik edo arau-hausteengatik kontratua betetzen duen bitartean sortzen diren kalte-



galeren arduraduna izango da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 305. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontratua profesional batek baino gehiagok betetzen badute, guztiek bete beharko dituzte solidarioki klausula honetan aipatutako erantzukizunak.

22.3.- Lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta garbitasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu adjudikaziodunak, bera erantzule bakarra dela. Horretarako, kontratuaren xedea betetzeko beharrezkoak diren langileak izan beharko ditu bere kargura, eta haien enpresaburua izango da, ondorio guztietarako.

22.4.- Adjudikaziodunak ezin izango du kontratuaren betearazpena eten inolako arrazoiengatik, ezta ordainketan atzeratzeagatik ere, lege ezarritako kasuetan izan ezik eta betekizunei helduta.

22.5.- Adjudikaziodunak postua eskuratu eta instalatu beharko du, eta, halaber, berak instalatzeko eta aldi baterako eta behin betiko kentzeko gastuak zein mantentze gastuak ordainduko ditu.

Izozkien postua Udalak adierazitako ereduari lotu beharko zaio, eta honako ezaugarri hauek izango ditu:

- Ezin izango du 5 m²-tik gorako neurririk izan.
- Hori instalatzeko, ezin izango da inolako albaitaritza obrarik egin: autosostengagarria eta autonomia izan beharko da, baita desmuntagarria ere, hura lekualdatu behar denerako. Halaber, instalazioaren egonkortasuna eta segurtasuna bermatzen dituen dokumentazio teknikoa izan beharko du.

* Nolanahi ere, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emandako administrazio baimena (2014ko maiatzaren 5eko ebazpena) bete beharko du.

Taberna-txosna Udalak adierazitako ereduari lotu beharko zaio, eta honako ezaugarri hauek izango ditu:

- Ezin izango du 20 m²-tik gorako neurririk izan.

* Nolanahi ere, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emandako administrazio baimena (2014ko maiatzaren 5eko ebazpena) bete beharko du.

22.6.- Gainera, honako betebeharrak hauek bete beharko ditu:

a) Zerbitzua erregularitasunez eta etengabe ematea. Postua emakida indarrean dagoen bitartean zabalik egon beharko da, eta ezin izango da itxita egon bi egunetik gorako aldi, organo eskudunaren baimenik gabe.

b) Emakidaren xedea eta bertan ezarritako mugak errespetatzea. Beraz, ezin izango du postua/taberna erabili emakidan aipatutako jarduerak ez direnetarako, ezta jarduera horiek emakidarekin bateragarriak direnean ere.

c) Emakidaren xedea den kioskoa/taberna eta/edo barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltaria zuzenean ustiatzea, hori inori subrogatu ezin zaiola. Halaber, instalazioak ezin izango dira alokatu, azpialokatu edo laga zuzenean edo zeharka, ez osorik ez zati batean, Udalak askatasunez onetsitako arrazoi justifikatua dela-eta, hirugarren baten alde subrogatzea baimendu ezean. Kasu



horretan hirugarren horrek emakidatik ondorioztatutako eskubide eta betebeharrak guztiak hartuko ditu bere gain.

d) Emakidaren aldi osoan instalazioak eta okupatutako jabari publikoko ondasunak garbitasun, higie, segurtasun eta apaindura egoera onean mantentzea. Aurreko eginbeharrak betetzeko behar diren konponketek, bai adjudikaziodunaren ekimenez egindakoek bai Udalak eskatutakoek, sortutako gastuak adjudikaziodunaren konturakoak baino ez dira izango.

e) Udalak instalazioak eta okupatutako jabari publikoko ondasunak erabilera egoera onean jasotzeko behar diren zuzenketa, konponketa eta ordezen guztiak haren kontura egitea, emakida amaitutakoan, obra horien arazoia edozein dela ere.

f) Elektrizitate gastuak eta jarduera garatzeko behar diren gainerako gastuak ordaintzea.

g) Nolanahi ere, publizitate ez jartzea instalazioetan.

h) Prezioen zerrenda eta jarduera garatzeko gaitzen duen titulua ageriko lekuan jarri eta mantentzea, eta erreklamazio-orriak izatea.

i) Udalak adjudikazioa egiaztatzeko eman dion agiria kioskoko ageriko leku batean izatea.

j) Zerbitzua higie eta osasun baldintza onetan ematea, kioskoko langile guztiek elikagaien manipulazioaren arloko prestakuntza ziurtagiria izan beharko dutela.

k) Ustiapena behar bezala eta, nolanahi ere, erabiltzaileei zuzentasun handiena erakutsita, egin beharko da.

l) Debehatuta egongo da salgaiak kioskoaren barrutik kanpo erakusgai ipintzea.

m) Salmenta jarduerak lege ezarritako higie eta osasun arauetara lotu beharko dizkie, eta, horretarako, elikagaien manipulatuzailearen txartela izan beharko du.

n) Adjudikazioduna erantzulea izango da, hornitzaileei ordaintzen ez zaienean. Udala ez da horren erantzulea izango, ezta kioskoan/tabernan gerta daitezkeen kalteen eta lapurreten erantzulea ere.

ñ) Lehiaketara aurkeztutako proposamenean adierazi diren eta emakidaren adjudikazioan baloratu diren konpromiso, proposamen eta betebeharrak guztiak betearaztea, hala denean, Udala Zerbitzu eskudunek baimena eman eta gero.

22.7.- Honako hauek izango dira adjudikaziodunaren eskubideak:

a) Jarduera emakidan adierazi bezala gauzatzea, Baldintza Agirietan ezarritako arauetara aplikatu beharreko gainerako lege arauetara helduta.

b) Salgaien prezioak jasotzea, Gorrizko Udala baimendu beharko dituenak.

c) Interes publikoko arazoak direla eta, Udala emakida baliogabetzeko eskumena erabiltzen badu, adjudikaziodunak amortizatu gabeko ondasunen kostuaren baliokidea den kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du.

23.- ARAU-HAUSTEEN ETA ZEHAPENEN ARAUBIDEA.

23.1.- Zehapen araubidearen ondorioetarako, honako hauek izango dira:

23.1.1.- Arau-hauste arinak:

a) Adjudikaziodunak behar bezalako arreta eta begirunea ez erakustea erabiltzaileari.

b) Jendaurrean saltzeko zerbitzua etetea ondoz ondoko hamabost egunetan baino gehiagotan, hori justifikatzen duen arrazoirik gabe.

c) Udala ikuskaritzaren aginduak betearazteko orduan atzeratzea edo orduak berandutzea.

d) Udala ikuskaritzak datuak eskatzen dituenean, daturik ez ematea edo horiek emateko orduan berandutzea.

e) Emakidaren xedea den jabari publikoaren zatia ez garbitzea.



- f) Udalaren ustez, horrelakotzat jotzen den edozein, partikularrek edo Udal Ikuskaritzak aurkeztutako salaketengatik.

23.1.2.- Arau-hauste larriak:

- a) Udaleko organo eskudunak emandako aginduak ez betetzea, ikuskatu ondoren.
- b) Udal Ikuskaritzak eskatutako datuak eta txostenak ezkutatzea, ez egitea, desitxuratzea edo ukatzea.
- c) Huts-egite arinak behin eta berriro egitea: hilean hiru baino gehiago.
- d) Izozkien salmentarekin bat ez datozen gainerako elikagaiak, gozokiak, edariak eta/edo antzekoak saltzea.

23.1.3.- Arau-hauste oso larriak:

- a) Osasun publikorako arriskutsuak izan daitezkeen ekintzak edo ez-egiteak, baita pertsonentzat edo gauzetarako arriskutsuak diren akatsak edo egoerak zuzentzeko orduan berandutzea edo arduragabekeria agertzea ere.
- b) Urtebetean bi arau-hauste larri egitea.
- c) Udalaren jarraibideak eta aginduak ez betetzeko setakeria egiaztatua.
- d) Salmenta egiteko moduan edozein jarduketa iruzurgile edo irregulartasun larri egitea, horrek erabiltzaileentzako bereizkeria edo bidegabeko aberastea badakar.
- e) Emakidaren xede diren instalazioen abandonua edo erruzko narriadura edo arduragabea dakarren edozein jokabide.

23.2.- Zehapenak.

- a) Arau-hauste arinengatik 30 euroko zehapena ezarri ahalko da horietako bakoitzeko.
- b) Arau-hauste larriengatik 60 euroko zehapena ezarri ahalko da horietako bakoitzeko. Horrez gain, emakida bahitu ahalko da hilabeteko epean, horren ondorioz aldi horretan jarduera etengo dela.
- c) Arau-hauste oso larriengatik emakidaren iraungitasuna adierazi ahalko da, adjudikaziodunari ohartarazi ondoren, eta, horren ondorioz, emakida berriro adjudikatzen lizitazio-deialdia egingo da, Administrazioak egokitzen jotzen bada.

24.- KONTRATISTAREN KONTURAKOAK DIREN GASTUAK ETA ZERGAK.

24.1.- Kontratatisten konturakoak izango dira lizitazioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen ondorioztatutako gastu guztiak, baita kontratua gauzatzetik ondorioztatutakoak ere, hori eskritura publiko bihurtzen bada, 1.500 euroko zenbatekoraino.

Argitalpenetarako gastu horiek adjudikaziodunari egindako lehen ordainketatik kenduko dira, kontratatistak horien kostua Gorrizko Udaleko Diruzaintzan ordaindu duela egiaztatzen ez bada.

24.2.- Bai lizitatuak aurkeztutako proposamenetan bai adjudikazio aurrekontuetan bildutzat joko dira zuzeneko eta zeharkako tasa eta zerga guztiak eta kontratuaren betearazpena zergapetzen duten udal arielak, adjudikaziodunaren konturakoak izango direla horiek guztiak.

Orobat, adjudikaziodunaren proposamenetan eta kontratuaren prezioan sartutzat joko dira kontratua betetzeko egin behar diren gastu guztiak, balizko joan-etorriak barne.



25.- EPEAK BETETZEA.

Adjudikaziodunak kontratuaren egikaritze-epea bete behar du, agiri honetan aurreikusitako baldintzetan.

26.- KONTRATUAREN XEDEA OKER EDO PARTZIALKI BETETZEA

26.1.- Baldin eta adjudikaziodunak kontratuaren xedea oker bete badu edo kontratua betetzeko bere eskaintzan jasotako baliabide pertsonal edo material nahikoak jartzeko edo atxikitzeko konpromisoa ez badu bete, kontratazio-organoak bi aukera hauek izango ditu: kontratua suntsiarazi eta jarritako bermea konfiskatzea edo betebeharra ez betetzeak duen larritasunaren heineko zigor ekonomikoa jartzea, gehienez ere, kontratuaren aurrekontuaren 100eko 10ekoa.

26.2.- Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, horrek kontratuan zehaztutako zerbitzuak zati batean bete ez dituenean, kontratazio-organoak kontratua suntsiaraztea erabaki ahalko du.

V.- KONTRATUA ALDATZEA, SUNTSIARAZTEA ETA ITZULTZEA:

27.- KONTRATUA ALDATZEA.

Kontratua interes publikoko arrazoiaren ondorioz eta behar bezala arrazoitutako ezusteko arrazoiaren ondorioz aldatu ahalko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 210. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Kasu horretan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 156 . artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

28.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

28.1.- Gorrizko Udalak, epea bete baino lehen, baimena baliogabetzeko eskumena gorde du beretzat, bat-batean gertatutako interes publikoko arrazoiak hori justifikatzen badute. Kasu horretan, adjudikaziodunari Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritako zenbatekoak biltzen dituen kalte-ordaina emango zaio.

28.2.- Gainera, Gorrizko Udalak baimena baliogabetu ahalko du honako kasu hauetan:

a) Heriotza, ezintasuna eta sozietate kontratatzailearen edo banakako kontratistaren nortasun juridikoaren iraungipena, baita ordainketak eten edo kontratistak porrot egiten duenean ere, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik egon gabe.

b) Instalazioak suntsitzea, bai osorik bai zati batean —horien balioaren % 50etik gorako zenbatekoan—, horrek adjudikaziodunaren aldeko inolako kalte-ordainik sortuko ez duela.

VI.- KONTRATUA AMAITZEA:

29.- KONTRATUA BETETZEA.

29.1.- Kontratistak kontratua bete duela adieraziko da, baldin eta kontratuaren xede guztia bete badu, agiri honetan eta agindu teknikoaren agirian ezarritakoarekin bat, eta



Administrazioa ados agertu bada. Administrazioak bere adostasuna berariaz azaldu beharko du, kontratuaren xedea bete eta hilabeteko epean.

29.2.- Zerbitzuak ez badaude onartzeko moduan, egoera hori berariaz azalduko da eta kontratistari bidezko jarraibideak emango zaizkio, antzemandako akatsak zuzentzeko eta hitzartutakoaren arabera berriz betetzeko. Hala ere, egindako lanak ez badira kontratatutako zerbitzura egokitzen, kontratistari egotz dakizkiokeen akats eta hutsen ondorioz, Administrazioak baztertu egin ahalko du. Kasu horretan, ordaintzeko betebeharra salbuetsita geratuko da, eta, hala badagokio, ordura arte ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du Administrazioak.

30.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA ETA IRAUNGITZEA.

30.1.- Betetze kasuez gain, kontratua suntsiarazpenagatik iraungiko da, eta suntsiarazpen hori erabakiko da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 223. eta 269. artikuluetan ezarritako arazoietako baten bat gertatzen bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 224. artikuluan ezarritako ondorioak sortuta.

30.2.- Kontratu hau iraungitzean, kontratu honen xede diren lanak egin dituzten pertsonak ezingo dira, inola ere, administrazio kontratatzaileko langile gisa finkatu.

31.- BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA EDO KITATZEA.

31.1.- Kontratatistak kontratuaren ondoriozko betebeharrak bete dituztenean, behin betiko bermearen gainean bete beharreko erantzukizunik sortu ezean eta berme-epea amaituta, hala badagokio, bermea itzultzeko edo baliogabetzeko erabakia hartuko da.

31.2.- Zati bat onartzen baldin bada, ez da baimenduko bermearen zati proportzionala itzuli edo baliogabetzea, kontratatistak eskaera egin ondoren.



I. E R A N S K I N A - PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak (NAN zk.: _____); eta jakinarazpenetarako helbidea: _____), adinez nagusia denak, _____(a)ren

kontratazioa eraendu behar duten administrazio klausula berezien eta agindu teknikoen agiria jakinda eta horietako edukia osorik onartuta, _____(r)en (izen propioa edo ordezkatzeko duen pertsonarena edo entitatearena, azken kasu horretan haren zirkunstantziak adierazita) izenean, aipatutako kontratua gauzatzeko konpromisoa hartu du honako zenbateko honetan:

1. sorta

Izozkien salmenta-postua Astondon, 1. zenbakian.

Prezioa: (letratan) _____ euro; (zenbakitan) _____.

2. sorta

Izozkien salmenta-postua Busterriz zubian, 3. zenbakian.

Prezioa: (letratan) _____ euro; (zenbakitan) _____.

3. sorta

Taberna-txosna aterpetxearen gunean, 2. zenbakian.

Prezioa: (letratan) _____ euro; (zenbakitan) _____.

4. sorta

Barkilloen eta antzekoen salmenta ibiltaria Areatzan, 4. zenbakian.

Prezioa: (letratan) _____ euro; (zenbakitan) _____.

Lizitazio honi atxikitako baliabideak:

Sinadura

Gorkizen, 2014ko _____aren _____(e)(a)n.

Agiri hau Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi du, 2014ko maiatzaren 9an egindako bileran.